

"ENDIKAMARIREN KASUA" ORAINDIK PURI-PURIAN DABIL. BILBOKO PARKEAN AGERTUTAKO GIZASEME GAZTEARENA. ZELAN BIZI AHAL IZAN DA HAINNBESTE URTEAN BBK26 BARIK?

NEWS

BBK26

# "HORI BBKN SENDATUKO DIOTE"

PIN DOKTOREAK TARTETKO BAT EGIN DIGU BERE AGENDA EZIN BETEAGOAN ETA GEURI BAKARRIK ESAN DIGU DIAGNOSTIKOA.

**"B, B ETA K26 BITAMINARIK EZAK TXARTELPLASTIA, ABANTAILAK GALTZEA ETA KREDITUAREN ANEMIA EKARRI ZIZKION".**

**"DOALA BBK-REN EDOZEIN BULEGOTARA ETA HANTXE EMANGO DIOTE HOBARI ETA DESKONTU DOSI EGOKIA GORRIAREKIN, DOAKOA DA ETA"**



gorria.


www.bbk.es

# MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

# beirtoa

Lege gordailua: BI-85-98  
ISSN: 1577-9025

2007ko ekaina  
100. zkia. Gehigarria. Doan



# zenbaki





## EHUN ZENBAKI, HAMAIKA IRUDI

BERTONek bere ehungarren zenbakia plazaratzen duela ospatzeko, gure artxiboetan txonbo egin eta karpeta guztiak arakatu ostean, argazki sorta bat aukeratu dugu, denak batera ale berezia osatuta gure irakurleei opari emateko.

Izan ere, ospatzeko modukoa da ehungarren zenbakia kaleratzea. Joan den mendean hasi ginen, egizue kontu. Urrutiko sasoia, beraz, 1998ko otsaila, BERTONen lehenengo zenbakia argitaratu zenean. Jende askoren laguntzaz, hainbeste euskaltzaleren babesa dela medio, milaka irakurleren arretari esker, aldizkaria bizi-bizirik dago ia hamar urte geroago, inoizko osasuntsuen eta ausarten. Kolorea ekarrita, interneten present, tirada handituta,... BERTON mahatsorri euskaldun askoren etxeetara sartzen da hilerro-hilerro zintzo-zintzo.

Argazki sorta honetan denetarik topatuko du irakurleak. Pertsonaiak -BERTONen azalean agertutakoak-, bazterrak, jaiak, kultura, gizartea, kirolak, irakaskuntza, ... Zer esana eman nahi duten irudiak dira, dela euren edertasunagatik, dela agertzen dituen pertsonaiengatik edo erakutsitako parajeak galdu edo aldatu direlako. Ehun zenbakiotan gure ingurua, Begoñako errepublika zaharra, eta gu geu, mahatsorriok, nabarmen aldatu dugulako.

Beste barik, lagunok, goza egizue argazki sorta honekin eta bihotz-bihotzez, eskerrik asko zuen laguntasunagatik.



Javi Salgado mahatsorria Bilbao  
Basketen hauspoa bilakatu da  
azken urteotan.  
2004ko ekaineko BERTONeko  
azala izan zen.  
Argazkia: Xouxe Simal.





Doctor Deseoko kide bi izan dira BERTONeko azala. Joxi Jimenez eta Francis Díez. Uribarrikoa 2002ko maiatzeko zenbakian agertu zen, Kafe Antzokiko kontzertu bateko irudiekin. Argazkiak: Iñigo Azkona.



Haizea Isasa mahatsorriak Baxe-Nafarroan egiten du lan. Albaitaria da eta gu berarekin egon ginen Uharte-Garaziko baserri baten, ardi eta behien artean. 2007ko apirilako azalean agertu zen. Argazkia: Iñigo Azkona.



Jose María Otxoa de Txintxetru mahatsorria 'Euzko Gudarostea' elkarteko lehendakaria da. 1936ko EAJko gudarien elkartea da. BERTONeko azala izan zen 2005eko otsailean. Argazkia: Iñigo Azkona.

Loli Astoreka Matiko aldean bizi izan da azken urteotan. Aktore ezaguna BERTONen azalean agertu zen 2006ko azaroan. Argazkia: Iñigo Azkona.

Eider Uruburu 2006ko maiatzeko zenbakiko azalean agertu zen. Kalea utzi eta baserrira joandakoa da, nekazaritza ekologikoan jardutera. Argazkia: Iñigo Azkona.



Irantzu Castrillo mahatsorriak Athleticekin Superligako txapela lortu zuen 2003ko apirilaren 23an San Mamesen. Emakumeak talde zurigorrian ate handitik sartu ziren. 2003ko maiatzeko BERTONeko azalean Irantzuk bere elastikoa erakutsi zuen. Argazkia: Iñigo Azkona.







Goian, ezkeran:  
Urte asko dira Miren Agur Meabe lekeitiar idazlea gure artean bizi dela. 2001eko abenduko BERTONen aurpegia izan zen. Argazkia: Iñigo Azkona.

Goian, eskuinean:  
Elektrobikinis taldeko gitarrajolea zen Janire Salvador mahatsorria. 2000ko urriko BERTON. Geroago taldea desegin zuten. Argazkia: Iñigo Azkona.

Ezkeran:  
Leire Zorrozuza kazetari eta telebista aurkezlea. 1999ko azaroko BERTON. Argazkia: Iñigo Azkona.



2006an 'Traka-Barraka' sortu zuten emakume gazte bik: Otxarkoagako Iratxe Ostolozaga eta Uribarriko Olatz Eskirotz. Neskatala eta andreentzako moda irudimentsua sortu dute harrez gero. Argazkia: Iñigo Azkona.



Elektrotuna musika talde ibiltaria Garoñako zentral nuklearraren eta goardia zibilen aurrean. 2000ko martxo.



Gaztedi dantza taldeak 50 urte bete zituen 2001ean. Azaroaren 4an ospakizun handia egin zuten Arriaga antzokian, belaunaldi zahar eta berriak bat eginda.





Artxandan 1936ko mili-  
ziaz eta gudariaren ome-  
nez jarritako monumen-  
tua. Inaugurazio ekital-  
dia. 2006ko ekaina.  
Argazkia:  
Luis Jauregialtzo.



Behean, ezkerrean:  
Munduko Emakumeak  
elkartaren batzarra.  
Fika kalean dauka egoi-  
tza eta kontinente guz-  
tietako andreak ba-tzen  
ditu bere baitan.  
2006ko iraila.  
Argazkia: Iñigo Azkona.

Behean, eskuinean:  
Euskara teknologia  
berrietan. Liher Elgeza-  
bal eta Susi Rodriguez  
mahatsorriak Basarrate  
plazan interneten nabi-  
gutzen. Elurnet enpresa  
eta blogari.net sortu  
dute, besteak beste.  
2006ko ekaina.  
Argazkia: Iñigo Azkona.



2000ko abendua. Euskaltzaleak AEKren alde atera ziren Santu-  
txun eta beste leku askotan, Espainiako Barne Ministerioaren  
eta Auzitegi Nazionalaren oldarrari aurpegia ematera.  
Argazkia: Xabi Herrera.



Luis Briñaseko ikasle eta irakasleek kalera jo behar izan zuten  
eskola ahalbait arinen konpon diezaieten eskatzeko.  
1998ko martxoan.  
Argazkia: Iñigo Azkona.



2004ko apirilaren 16an ehunka lagunek manifestazioa egin  
zuten Funeraria Bilbainak Zumalakarregin egin nahi zuen  
krematorioaren kontra. Proiektua geldiarazi zuten.



2003ko otsaila. Euskaldunon Egunkariaren itxieraren  
kontrako protesta Donostian.  
Argazkia: Iñigo Azkona.

Bakearen Aldeko Koordinadorak deituta, ETAk zemaizutakoei elkartasuna emateko elkarretaratzea  
egin zuten Txurdinagako parkean. 2004ko otsaila.








2006ko urriaren 23an Guardia Zibilak Santutxuko Herriko Taberna hartu zuen. Herritarren protesten artean egin zuten alde.



Solokoetxe auzoan mobilizazio multzotsuak egin zituzten metadonaren banaketa deszentraliza zezaten eskatzeko. 1998ko apirila. Argazkia: Iñigo Azkona.



Goian, ezkerrean: 2004ko urtarila. Gazteak Sorgintxulo-ren aitean. Argazkia: Iñigo Azkona.

Erdian: 2004ko urtarila. Gaztetxearen bosgarren urteurrenean, tira eta tira. Argazkia: Iñigo Azkona.

Lerro hauen gainean: 2004ko abenduaren 16ko goizeko bederatzietan ametsa bat-batean eten zen. Sorgintxulo itxi zuten. Argazkia: Iñigo Azkona.

Ezkerrean: 2004ko urte akabuan, Santutxuko gazteek Gorbeako aterpetxea okupatu zuten, auzotarrek eraikitakoa auzoari bueltatzeko eskatuz. Karmel-darren esku zegoen auzo-lanean alxatutako aterpetxea.





2002ko urtarila. Karmeloko lokalaren okupazioaren hirugarren urteurrena. Ametsen baratza fruituak ematen hasita zegoen. Argazkia: Iñigo Azkona.

Zorionak emateko modu asko daude. Marrazki abstraktoek ere balio dute. 2003ko urtarila.



Gure parajeetako ikur ikusgarrienetako bat Etxebarria fabrikako tximinia da. Joandako industria garaien azken arrastoa. 2000ko apirila. Argazkia: Iñigo Azkona.




Santutxuko gabon argiak, dendetakoekin eta autoetakoekin nahastean. 1999ko abendua. Argazkia: Iñigo Azkona.



2006an eraitsi zuten Iturribide eta Zabalbide arteko etxe hori, Begoiako kartela eta guzti. Argazkia: Iñigo Azkona.

Goian, eskuinean: Otxarkoaga inguratu behar zuten saihesbide polemikoaren lehenengo lanak.

Larreagaburu edo Mina del Morro aldea erakitzen hasi baino lehen. Unzeta parrokoaren etxe-multzoaren aurrean, orubea hutsik. 1998. Argazkia: Iñigo Azkona.







Begoñako errepublika zaharra Artxandatik ikusita. Elurra mendietan eta eguzkia zeruan. 2005eko urtarila.

Ez duzuela Etxebarria parkean belar metarik ikusi? Horra hor, handi-handia gainera.



Abasolo da Uribarri aldeko azken txakolindegia. Herrikoia da, oso, baina bere azkenetan dago, bertan etxeak egin behar dituztelako. Miraririk ezean, beste irudi bat historiarako. 2006ko iraila.  
Argazkia: Iñigo Azkona.

Begoñako errepublika zaharra, airetik. Campo Volantin, Uribarri, Begoña, Zurbaran aldea, Txurdinaga,... Argazkilariak zeppelin batetik lortu zuen irudia. 2001eko uztaila.  
Argazkia: Iñigo Azkona.



Txurdinagako Garai lorategiak neguan. Koloreak loratzen hasi zaizkigu bazterrotan. 2007ko urtarila.  
Argazkia: Iñigo Azkona.

Urte askotan Ibarsusi aldean eguaztenero merkatua egin izan zuten. 1999ko urria.



Ibaizabaleko ibarrak hegazti askoren habia dira oraindik ere Bolueta aldean. 2006ko abendua.  
Argazkia: Iñigo Azkona.



Boluetako Santa Ana zena 2006ko martxoan, fabrika eta gainerako eraikinak eraitsi eta gero. Bertan etxeak eraiki behar dituzte.

Behean: Boluetako Santa Ana burdin fabrika Zubialdetik ikusita. Zubibarrri eskuinean eta lantegia ezkerrean, ibai ertzean. 2005.








2001eko maiatzaren 23a. Mikel Alvarez mahatsorriak bere auzoaren izena zabaldu zuen Everest mendiko tontorrean.






Sanjuan suak gure auzoetako jai tipikoak izan ziren sasoi baten. Gaur egun ere badira. Horren lekuko, 2005ean Ibarsusin egindakoa.



Santutxuko jaiak dira gurean indar handiena daukatenak. Umeak Karmelo plazako Gargantuaren ahoan sartzean. 2005. Argazkia: Iñigo Azkona.



Uribarriko jaiak ere polito hazi dira azken urteotan. 2004ko irailean Gatillazo taldea ekarri zuten, La Pollako Evaristo mitikoa buru zutela.



Ezkerrean, goitik behera: 90ko hamarkadan suspertu zuten Begoñako erromeria -urriaren 11n egiten dena-. 2000koa da irudia eta bertan Manolo Legina dugu soinua jotzen. Argazkia: Iñigo Azkona.

Pa Ya konpartsak egin ohi zituen txarribodetako bat. Arbolantxa baserrian hil zuten Froilan Mosquera txerria 1998ko azaroan.

Pregoa aurreko segizioan parranda eta aldarrikapena. Besteak beste, presoan argazkiak. Amnistiaren eskaria sarritan ikusten da gure kaleetan. Santutxu 2003 Argazkia: Iñigo Azkona.

Auzoetako jaiak lagun askoren ahalegin esku-zabalari esker egiten dira. Zurbaranbarrin 90ko hamarkadan hasi ziren eta gaur egun ere jarraitzen dute. 1999ko maiatza. Argazkia: Iñigo Azkona.

Azken urteotan Otxarkoagako Peña Pa Ya konpartsak Justugune jaiak suspertu eta euskal jai bilakatu du. Iru-dian, Tetuane landako txosna 1999an.







Santutxuko inauteriak 1999.  
Zu zeu! Argazkia: Iñigo Azkona.



Santutxuko inauteriak 1998.  
Dultzemeneoa maraka eta guzti!  
Argazkia: Iñigo Azkona.

Betaurrekoetan kalea islatuta.  
Nor dago nori begira? Santu-  
txuko inauteriak. 2004.  
Argazkia: Iñigo Azkona.



Zipi eta Zape, a ze pare! Ez esan gero ume gozoak ez  
direnik! Santutxuko inauteriak. 2007.  
Argazkia: Iñigo Azkona.



Lore politik ez dira falta gure bazterretan,  
ezta? Santutxuko inauteriak. 2001.  
Argazkia: Iñigo Azkona.









2002ko Sei Izar Herri Krosa. Umeen lasterketaren irteera. Lekua lortu nahian.  
Argazkia: Iñigo Azkona.

2006ko urriaren 7an Artxandako funikularraren 91. urteurrena lasterketa batekin ospatu zuten. Korrikalariek ia 1.500 mailak igo behar izan zituzten.  
Argazkia: Iñigo Azkona.



2000ko Euskal Bizikletako hirugarren etapa Txurdinagan amaitu zen. Serpellini italiarra nagusitu zen sprintean, Txente Garcia Acostaren eta Dabid Etxebarriaren aurretik.  
Argazkia: Marisol Ramirez.



2007ko Sei Izar Herri Krosa. Helduen lasterketaren hasiera, erlojuari erreparatzeko tenorea.  
Argazkia: Iñigo Azkona.

2004ko Sei Izar Herri Krosa. Aldats gogorrari, irribarre zabala.  
Argazkia: Iñigo Azkona.







Santa Ageda bezperan Begoñazpiko ikasleak Santutxuko kaleetan kantu gehiago egiteko gogoaz. 2004ko otsaila.

Txurdinagako eskolako umeak Harry Potter baino trebeagoak dira magia kontuetan. Inauteriak. 2002.



Karmelo ikastolak azken urteotan behin eta berriro irten behar izan du kalera agindutako eraikin berria eskatzera. Oraindik ere horretan dihardu. Argazkian, Gran Vía egindako protestaldia. Argazkia: Iñigo Azkona.



Gero eta gehiago dira uztaila udalekuetan ematen dituzten ume mahatsorriak. Batzuk, etxetik irten barik. Irudian, 2006ko udalekuko umeak Txurdinagako igerilekuan. Argazkia: Iñigo Azkona.



Briñas eskolako gaztetxoek bertsotan egin zuten Bizkaia Irratirako. Argazkian, Jabi Onaindia kazetariagaz batera. 2004ko azaroa.



Kirikiño ikastolako sortzaile eta sustatzaileak argazkian batu ziren ikastolaren 25. urteurrenean (2003an).

Gaizto itxura egiteko ahaleginean ote? Argazkia: Iñigo Azkona.







Korrika 11ko euskaltzale ausartak Artxandarako aldatsean gora. 1999.



Goian eta ondoan (eskuinean): Korrika 15 Otxarkoaga-ko plazan eta Santutxun. Gau ilun eta euritsuan ere euskaltzaleak karran. Argazkiak: Aiol.



Korrika 12ko korrikalariak Uribarrin. 2001.



Umeak ere protagonista izaten dira Korrika guztietan. Argazkian: Santutxuko Korrika txikia. 2005. Argazkia: Txema Camara.



Korrika 13 Zumalakarregitik behera. 2003. Argazkia: Iñigo Azkona.

Korrika 14 Santutxuko Karmelo kalean. 2005. Argazkia: Iñigo Azkona.

Eskuinean: Goitik behera: Bilboko Udalaren 'Ikusi eta ikasi' egitarauak Pirritx eta Porrotx pailazoak eraman zituen Begoñako auzo-etxera 2006an. Argazkia: Iñigo Azkona.

Euskararen Asteak Txurdinaga eta Santutxuko eskola eta elkarte asko auzolanean jartzen ditu ikasleen artean euskararen erabilera sustatzeko. Argazkian, pailazoarekin berbetan Karmelo plazan. Argazkia: Iñigo Azkona.

Euskal musika gurean. Asapalak gonbidatuta, 2004ko otsailean Aiora Renteria, Rafa Rueda, Aitor Gorosabel eta Gotzon Uribe Sorgintxulora hurreratu ziren musikaz berba egiteko. Hamaika lagun hurreratu zen euren esanak entzuteko. Argazkia: Iñigo Azkona.

Uribarrin 2006an gau eskola zabaldu zuten, euskara doan eta auzolanean transmititzeko. Argazkian, ikasleak 'Kalean gora' abesten. 2007ko maiatza. Argazkia: Iñigo Azkona.







Goian, ezkerrean: BERTON Euskal Herritik kanpo sarri ibiltzen da. Irudian, Japonian, 2005eko ekainean. Argazkia: Iratxe Ruiz.

1999ko Korrikan BERTONek lekukoa eraman zuen. Argazkian, Urtzi Urrutikoetxea, Zuriñe Uriarte eta Aitziber Laskibar. Argazkia: Xabi Herrera/Mikel Arrese.


2003ko korrikako irudi honekin posterra atera zuen BERTONek. Otxarkoaga aldeko korrikalariak dira. Argazkia: Iñigo Azkona.

2003ko Korrikan ere BERTONek lekukoaren ohore hartu zuen. Argazkian, Itxaso Perez eta Unai Cuevas lasterketa buru. Argazkia: Iñigo Azkona.

BERTONeko argazkilaria Iñigo Azkona lanean. Argazkia: Iñigo Azkona.



BERTON aldizkariak AEKegunean bere lekutxo eduki zuen. Argazkia: Iñigo Azkona.







2007ko otsaila. Santaeskea Azkaraiiko Etxezuri baserriaren aurrean. Atean, Martin Mentxakatorre.

2004ko otsaila. Begoñako santaeskea, lehengo lege zaharrean. Oles eta oles Etxarte baserriko atean. Argazkian, besteak beste, Alain M. Urrutia, Iñaki Aurrekoetxea, Iker Martinez de Lagos, Koldo Urrutikoetxea, Mikel Galartza, Joserra Bilbao eta Joxin Iturrioz.

